

**PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATUAREN BITARTEZ LIZITAZIOA ERAENDU BEHARKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIAKO SUSTAPENAK, KUDEATZEN DITUEN ERAIKINEN KUDEAKETA ETA MANTENTZE JARDUERETAN ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO AZPIEGITUREN KUDEATZAILE MODUAN, ONDORENGO EREMUE TAN ESKA DITZAKEEN LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO: OBRAK ETA ARKITEKTURA, INGENIARITZA ENERGETIKOA ETA INSTALAZIOENA, ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO INGENIARITZA**

## **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Kontratazio honen helburua da Donostiako Sustapena S.A. (aurrerantzean, SUSTAPENA) laguntza tekniko kualifikaturako eska dezakeen laguntza teknikoaren zerbitzua ematea, betiere Sozietateko langile teknikoek beharrezkotzat jotzen badute, honako arlo hauetan: kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze-lan jardueretarako obrak eta arkitektura eta ingeniari-tza energetikoa eta instalazioen eremua, eta Telekomunikazioetako Azpiegituren Kudeatzailearen jardueratik eratorritako premietarako telekomunikazioen ingeniari-tza arloa, Plegu honetan aurreikusitakoaren arabera.

SUSTAPENAK Sociedad Balneario La Perla del Océano, S.L.-ren jardueretan (aurrerantzean, Sociedad Balneario). bere gain hartzen duen erantzukizuna dela-eta, lehiaketa honen barnean sartuko da sozietate horrek obren eta arkitekturaren eremuan eskatutako laguntza tekniko-ko lanen kontratazioa.

Laguntza tekniko hori, oro har, izango da eremu horietan eta jarduera horietarako sor daitezkeen premietarako. Besteak beste, izaera murriztailerik gabe, honako hauek bezalako lanak sortu ahal izango dira: eremu horietan sortutako arazo ezberdinen analisia, premien ebaluazioa, irtenbi-deak identifikatzea eta horien balorazio ekonomikoa egitea, premien definizio teknikoa eta ho-rien balorazio ekonomikoa (kanpoko kontratazioak behar badira, plegu teknikoak egitea barne), eskaintzak ebaluatzea, jardueren segimendua egitea, eremu horiekin zerikusia duen edozein al-derdiri buruzko txosten teknikoak egitea, SUSTAPENAKO teknikariei erreminta teknikoak ematea, edo, eguneroko lanean eta kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egonda, SUSTAPE-NEKO langileek identifika dezakeen beste edozein lan.

Kontratua loteka esleituko da.

Era berean, izaera ez murriztailearekin, lote bakoitzean ondorengo lan espezifikoak egin beha-rko dira:

## • 1. Lotea. Laguntza teknikoaren zerbitzua obrak eta arkitektura eremuan

- Egon daitezkeen patologiak identifikatzea eta hainbat eraikinetan behar diren prebentzioko mantentze-lanak definitzea eta horien segimendua egitea (instalazioak orokorrean eta energia-instalazioak espezifikoki kapitulua kenduta).
- Antzemandako arazoak aztertzea, mantentze zuzentzailea behar duten premiak definitzea, eta, hala behar izanez gero, lan horien segimendua eta berrikuspina egitea.
- Laguntza teknikoa, obra ezberdinetan eska daitezkeen legezko eskaerak eta egokitzapenak betetzeko (proiektu espezifikokoaren xede izan direnean izan ezik).
- Laguntza teknikoa, obra zibilarren eta eraikuntzaren arloan SUSTAPENAK eska dezakeen kanpoko kontratazioaren prozesuetan.
- SUSTAPENAREN eraikinetarako hirugarrenek proposaturiko aldaketa eta/edo obra proposamenak berrikustea.
- Eraikinak egokitzeko eta hobetzeko balorazio teknikoaren eta ekonomikoaren gaineko txostenak.
- Eraikinaren liburuaren segimendu eta kontrol orokorra.
- Aholkularitzako eta laguntza teknikoko bestelako eginkizunak.

Lote honen kontratazioan ez dira sartzen proiektuak idaztea (bisatua behar izan ala ez) eta horien obra-zuzendaritza, dagokien kontratazioan sartu behar dira-eta.

## • 2. Lotea. Laguntza teknikoaren zerbitzua ingeniari-tza energetikoaren eta instalazioen eremuan

- Kontratu elektrikoen urteko berrikuspina.
- Kontsumo termikoen berrikuspina eta kostuen analisisa eta erabiltzaileei egozte.
- Instalazioak orokorrean eta energia-instalazioak espezifikoki kapituluko prebentziozko mantentze-lanak definitzea eta horien segimendua egitea.
- Instalazio ezberdinetan eska daitezkeen legezko eskaerak definitzea eta horiek betetzen diren jakiteko segimendua egitea.
- Mantentze zuzentzailea behar duten premiak definitzea eta, hala behar izanez gero, lan horien segimendua eta berrikuspina egitea.
- SUSTAPENAREN eraikinetan dauden instalazioak egokitzeko eta hobetzeko proposamenen balorazio teknikoko eta ekonomikoko txostenak egitea.
- Energia-eraginkortasuna hobetzeko azterketak.
- Laguntza teknikoa, instalazioen eremuan SUSTAPENAK eska dezakeen kanpoko kontratazioaren prozesuetan.
- Eraikinaren liburu-ko instalazioen atalaren segimendua eta kontrola.
- Aholkularitzako eta laguntza teknikoko bestelako eginkizunak.

Lote honen kontratazioan ez dira sartzen proiektuak idaztea (bisatua behar izan ala ez) eta horien obra-zuzendaritza, dagokien kontratazioan sartu behar dira-eta.

## • 3. Lotea. Laguntza teknikoaren zerbitzua telekomunikazioetako ingeniari-tza ere-

#### **muan**

- Irtenbide teknologikoei eta zerbitzuetakoei buruzko analisiak eta txostenak.
- Lehendik dauden azpiegiturei edo azpiegitura berriei buruzko lan teknikoak eta balorazio ekonomikoak.
- Telekomunikazioetako azpiegitura berriak hedatzeko proposamenak eta/edo proiektuak.
- Egon daitezkeen irtenbide berrien telekomunikazioetako zerbitzuen egoera teknologikoaren eta eskaintzaren inguruko analisiak eta txostenak.
- Telekomunikazio-zerbitzuen arloan dagoen eskaintzaren analisia eta txostenak eta zerbitzu berrien balorazioa eta proposamena (hartzaileak, ezaugarriak, prezioa,...).
- Aholkularitzako eta laguntza teknikoko bestelako eginkizunak.

Lote honen kontratazioan ez dira sartzen proiektuak idaztea (bisatua behar izan ala ez) eta horien obra-zuzendaritza, dagokien kontratazioan sartu behar dira-eta.

Enkarguak enpresa kontratistarekin definituko dira, eta edozein bitartekoren bidez eskatu ahal izango dira. Hala ere, enkargu horiek zehaztaperen tekniko zehatzak behar badituzte edo epe bat finkatu behar bada, idatziz egin beharko da (e-mailez), hala badagokio, aipatu zehaztapenak gehituta.

## **2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA**

Erakunde kontratugilea DONOSTIAKO SUSTAPENA SA da (aurrerantzean, SUSTAPENA).

Kontratazio Organoa SUSTAPENAKO lehendakariordea da.

Obren eta arkitekturaren eremuko laguntza teknikoko zerbitzuen enpresa esleipendunak Sociedad Balneario, S.L.-k eremu horretan eskatutako zerbitzuak ere eman beharko ditu, kasu horretan sozietate hori izango delarik erakunde kontratatzailea.

## **3. ESLEIPEN-PROZEDURA**

Kontratua publizitatedun prozedura negoziatuaren bitartez esleituko da, ekonomikoki eskaintza onuragarriena aurkeztzen duen enpresariari, Plegu honetako 12. Klausulan adierazitako alderdi ekonomikoen eta teknikoen alderdien inguruan parte hartzen duten lizitatzzaileekin dagokion negoziaketara egin ondoren.

Lizitatzzaileek aurkeztzen duten azken eskaintza Plegu honetako 13. Klausulan eskaintzak baloratzeko ezarritako irizpideen arabera baloratuko da.

#### **4. KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratuaren iraupena 1 urtekoa izango da kontratua gauzatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratua luzatu ahal izango du beste 1 urterako Kontratazio Organoak, SUSTAPENAK kontratistari jakinarazpen fede-emailea eginaz, jarduneko kontratuaren iraupen-epearen azken hiruhilekoan. Horrela, kontratistak kontratua eta hori indarrean den bitartean (luzapenak barne) eraentzen duen Plegua bete beharko ditu.

#### **5. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENENKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIOA GUTXI GORABEHERA**

Parte bakoitzaren lizitazioaren urteroko gehienezko aurrekontua honakoa izango da:

1. lotea: 15.000 eurokoa da, BEZ sartu gabe; zenbateko hori lizitatzailleek murriztu ahal izango dute.
2. lotea: 12.000 eurokoa da, BEZ sartu gabe; zenbateko hori lizitatzailleek murriztu ahal izango dute.
3. lotea: 9.000 eurokoa da, BEZ sartu gabe; zenbateko hori lizitatzailleek murriztu ahal izango dute.

Zenbateko horri 9.000 eurotako gehienezko urteroko lizitazio-aurrekontua gehituko zaio, BEZa kanpo, obren eta arkitekturaren eremuko laguntza teknikorako zerbitzuak Sociedad Balneario, S.L.-k kontratatzen dituenerako (1. atala).

Lizitatzailleek aparteko partida moduan azaldu beharko dute SUSTAPENAK jasan beharreko BEZa.

Lizitatzailleak egingo duen proposamen ekonomikoa orduko prezioaren arabera egingo da.

Xede horietarako, eta berdin atal guztietan, honakoak izango dira gehienezko prezio unitarioak (BEZa kanpo):

Kategoria teknikorako:

- 55 € hilabeteko lehen 10 dedikazio-orduentzat.
- 50 € hilabeteko 10 eta 40 ordu arteko dedikazio-orduentzat.

- 45 € behin hilabeteko lehen 40 orduak gainditu ondorengo dedikazio-orduentzat.

Langile laguntzaileen kategoriarako, delineazioan:

- 30 € hilabeteko lehen 10 dedikazio-orduentzat.
- 25 € hilabeteko 10 eta 40 ordu arteko dedikazio-orduentzat.
- 20 € behin hilabeteko lehen 40 orduak gainditu ondorengo dedikazio-orduentzat.

Lizitatzailak eskainitako prezioan sartuko dira zerbitzua ematearekin lotuta dauden kontzeptu guztiak eta langileen inguruko gastu guztiak (soldatak, eta Gizarte Segurantzak, oporrak eta aparteko ordainsariak, baja edo gaixotasun bidezko ordezkapenak, banako istripu-aseguruak, e.a.), nahiz zerbitzuak eragindako zergak (BEZ kanpo), garraio-kostuak, joan-etorriak, gainerako aseguruak, lizentziak, baimenak eta bestelako gastu orokorrak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bateratua (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 88. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, kontratuaren balio osoa gutxi gorabehera 72.000 (HIRUROGEITA HAMABI MILA) eurokoa izango da, BEZ sartu gabe. Sociedad Balneario, S.L.-k egin beharreko kontratuaren balio zenbatetsia, era berean, 18.000 (HAMAZORTZI MILA) eurotakoa da. Hala, 90.000 (LAUROGEITA HAMAR MILA) eurotakoa da kontratu bien guztizko zenbatetsia.

Balio hori SPKLTBko 88 artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

## 6. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratatik hilabetero fakturatuko ditu laguntza teknikoko aholkularitza-zerbitzuak (hilabete natural bakoitzeko).

Faktura horren zenbatekoa kontratistaren langileek gauzatutako ordu-kopuruaren arabera ezarriko da, atal bakoitzean xede diren zerbitzuak emateagatik, kontratatik eskatutako zerbitzuak emateko esleitutako profesionalen kategoria desberdinetarako eskainitako prezioa/ordua unitarioak ezarri.

Edonola ere, gutxieneko ordu batzuk ordainduko dira hilabeteko, atal bakoitzean:

1. atala: 10 ordu SUSTAPENAREN kasuan eta 5 ordu Sociedad Balneario, S.L.-ren kasuan.
2. atala: 8 ordu.
3. atala: 5 ordu.

Hilabeteren batean ez balitz bermatutako gutxieneko ordu-kopuru hori beteko, ordaindu eta bete ez diren ordu horiek hurrengo hilabetearen egindakoetatik kenduko dira (beti behin ere gutxieneko ordu-kopuru gauzatuta).



Laguntza teknikoko zerbitzuak ematen betetako orduak kontratistak justifikatu beharko ditu. Hala, hilabete bakoitzari dagokion fakturan agertu beharko dira hilabete horretan berariaz emandako zerbitzuak eta zerbitzu hori ematen parte hartu duen profesional bakoitzak betetako ordukopurua. Modu gehigarrian, eta SUSTAPENAK hala eskatzen duenean, berariazko zerbitzu bat emateko gauzatutako lan konkretuei buruzko informazio zehaztua eman beharko du kontratistak.

Plegu honetan aurreikusitako kontratu-helburutik kanpo egindako lan edo zerbitzurik ez da ordainduko, aurretik SUSTAPENAK eskatu ez badu, behintzat.

Enkargu bakar baterako 40 ordu baino gehiagoko aurretiazko langile teknikoen dedikazioa aurreikus daitekeenean, berariazko aurrekontu bat eskatuko da eta Sustapenak lana zuzenean eskatu ahal izango du, hirugarren bati esleitu ahal izango dio edo kontratistari berari eskatu ahal izango dio, kasu bakoitzean dagokion prozedurari jarraiki. Lana zuzenean onartuz gero, balioetsitako orduetan oinarrituta gauzatutako aurrekontua itxitzat joko da, lana gauzatzeko behar izandako ordu errealak izandakoak izan direla ere.

Hilabeteko fakturak, behin langile arduradunen oniritzia jasota, SUSTAPENAK ordainduko ditu adierazitako kontu korrontera banku-transferentzia bat eginda, fakturan agertzen den dataren hilabete naturala bukatu eta 30 eguneko epean.

## 7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio prezioen urteroko berrikuspenik.

## 8. PUBLIZITATEA

Lizitazioa hau nahiz esleipena SUSTAPENAREN profil kontratugilean argitaratuko da.

Profil horretara [www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus) web gunetik eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataformaren bidez sartu ahal izango da.

## 9. GARANTÍA

Enpresa adjudikaziodunak, bere gain hartutako eginkizunen betetzea bermatzeko helburuz, adjudikazioaren %5eko zenbatekoaren baliokidea den behin betiko garantia eratu beharko du, BEZa kanpo.

Aipatutako garantia eratzeko epea hamar egun balioudunekoa izango da, SUSTAPENAK egingako eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

SPKLTBeko 96. artikuluan ezarritako edozein bideren bitartez osatu ahalko da.

Dirutan eratutako garantiak honako kontu korrontean sartuko dira: 2095 0611 03 1062706980

Abal gisa aurkezten baldin bada, baldintza-agiri honetako VI. Eranskinean erantsitako eredura doitu beharko du.

Garantiaren osaketaren akreditazioa ezin izango da bitarteko elektronikoen bidez egin.

Garantiaren itzultzea SPKLTBeko 102. artikuluan ezartzen denaren arabera egingo da, behin enpresa kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituztenean eta kontratuaren amaieratik 3 hilabete igaro direnean.

Adjudikaziodunari eska dakizkiokkeen kalte-ordainak garantiaren gainean eraginkor egiten bada, adjudikaziodunak garantia berriz jarri edo handiagotu egin beharko du dagokion kopurua jarrita, gauzatzetik hasi eta 15 egun naturaletan. Hala egiten ez badu, kontratua baliogabetzat joko da.

Klausula honetan aurreikusten ez direnenezako SPKLTBeko 95. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dena aplikatuko da.

## 10. GAITASUN-BALDINTZAK

SUSTAPENArekin kontratua egin ahal izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, jarduteko gaitasun osoa dutenek, kontratatzeke debekurik ez dutenek eta kaudimen ekonomikoa eta finantza-arlokoa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen dutenek.

Halaber, kontratuaren xedeko jardura edo prestazioa egiteko eska daitekeen gaitze profesionala edo enpresa-mailakoa izan beharko dute lizitatzailerik, eta ez da onartuko aldi baterako laneko enpresen gaitze profesionalik.

Pertsonak juridikoak soilik beren estatutu edo fundazio arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jardura eremuen barruan jasotako prestazio kontratuen esleipendun izan

daitezke.

SUSTAPENArekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, edonola ere, Europar Batasuneko Estatu kideetako espainiarrak ez diren enpresek, ezarrita dauden Estatuko legediaren arabera, prestazio hori egiteko gaituta aurkitzen direnek, eta, kasu horietan, SPKLTBko 58. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek egoitza duten Estatuko legediak baimen bereziren bat izatea edo erakunde jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoek jarduteko gaitasuna Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute, dagokien Estatuan edo enpresaren helbidea aurkitzen den lurralde-eremuko Bulego Kontsularrean. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko kideko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.

Era berean, SUSTAPENArekin kontratatu ahal izango dute horretarako era daitezkeen enpresa-batasunek, eta kontratua beren alde esleitzen ez den bitartean ez da beharrezkoa izango enpresa batasunaren eskritura egina egotea. Edonola ere, SPKLTBko 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da.

Lizitatzailerik egiaztatu beharko dute ondorengo ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala badutela:

- Itxitako azken hiru ekitalditan, lizitazio honen barruko helburua prestatzeko eremuan, negozio-bolumena gutxienez kontratuaren gutxi gorabeherako balioa izatea.
- Azken bost ekitaldi itxietan (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017) laguntza tekniko edo laguntza jarraituko lanak egin izana eraikinen kudeaketa eta mantentze-lanen ardura duen enpresa batentzako, energia-instalazioak egiten dituen enpresa batentzako edo telekomunikazioen instalazioak eta zerbitzuak ematen dituen enpresa batentzako, lehiaketan parte hartuko den atala aintzat hartuta, eta gutxienez ekitaldi batean zehar.

Gehigarri gisa, lizitatzailerik eskatuko zaie kontratua gauzatzeko gutxienez ondorengo giza baliabideak adskribatzea:

- Lanen arduradun den pertsona bat edo, pertsona hori berdina ez baldin bada, zerbitzuaren prestazioaren arduradun zuzena den pertsona bat. Pertsona horrek azken 5 urteetan lan berbera egin izan beharko du laguntza tekniko jarraitu edo errepikatu baterako kontratu baten baitan, eta ekitaldi batez gutxienez. Lan hori, eta lehiaketara aurkezten den atalaren edo atalen



arabera, ardura jakin hori izan duen entitate batentzako izan beharko du egina, izan eraikinen kudeaketa eta mantentze-lanetarako, energien instalazioetarako edo telekomunikazioen instalazio edo zerbitzuetarako.

Lanen arduradunak edo, arduradunik ezean, zerbitzuaren prestazioaren zuzeneko arduradun den pertsonak, gainera, atal desberdinetan eskatzen den prestakuntza izan beharko du: 1. atalerako arkitekto-titulua edo baliokidea, 2. atalerako ingeniari industrialaren titulua edo baliokidea, eta, 3. atalerako, telekomunikazio-ingeniariaren titulua edo baliokidea.

Konpromiso hori kontratuan nahitaez bete beharreko baldintza izango da SPKLTBko 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori betetzen ez bada, SUSTAPENAK kontratua bertan behera utzi ahal izango du.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailleak Kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, 14. Klausulan eskatutako dokumentuak bazituela eta baliozkoak zirela proposamenak aurkezteko epea amaitu zenean; hots, SUSTAPENArekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak eta Klausula honetan eskatutako gaitasun eta kaudimen baldintzak egiaztatzen dituztenak. Egiaztapen hori aipatu 14. Klausulan ezarritako moduan egiaztatuko da.

Edonola ere, Kontratazio Organoak, esleipen-proposamena onartu aurreko edozein unetan, eskatu ahal izango du lizitatzailleek aipatu 14. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezatela.

## **II. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen duela Plegu honetan ezarritako guztia, inolako salbuespenik gabe.

Plegua eskuratzeko moduan izango da aipatu egunetik eta epe berean SUSTAPENAREN profil kontratugilean.

Lizitazioan parte hartzeko, lizitatzailleek hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte jarraian adieraziko den dokumentazioarekin, eta horietan enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta noren izenean egiten duen, telefono eta fax zenbakiak eta posta elektronikoaren helbidea adieraziko dira. Hori guztia irakurtzeko moduan jarriko da. SUSTAPENAK Donostian dituen bulegoetan (San Roke, 120 - Etxezuri) aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hamasei egun naturaleko epean.

Gutun-azal bakoitzaren atzealdean, halaber, ondorengo jarriko da: **“obrak eta arkitektura, ingeniariaritzaren energetikoa eta instalazioena, eta telekomunikazioetako ingeniariaritzaren eremuetan: donostiako sustapenak, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze jardueretan eta telekomunikazioetako azpiegituren kudeatzaile moduan eska ditzakeen laguntza teknikoko zerbitzuak” kontratatze, publikatutako prozedura negoziatuaren bidez, lizitazioan parte hartzeko proposamena**”; halaber, dagokion zenbakia adieraziko da (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, dagokionaren arabera).

Gutun-azal bakoitzeko edukia barruan orri independente batean zerrendatuko da; edukian, ondorengo agiriak jaso beharko dira:

## 1. Gutun-azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

- Orri independentean, gutun-azalaren barruko dokumentazioaren zerrenda zenbakitua; horrez gain, telefono eta fax zenbakiak nahiz posta elektronikoaren helbidea eta jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bidea, Plegu honetan **II. Eranskina** bezala gehitutako ereduaren arabera.
- Lizitazioaren erantzukizunpeko adierazpena, **I. Eranskinaren** eredura egokitua, SUSTAPENArekin kontratatze legeak ezarritako baldintza guztiak eta Plegu honetako 10. Klausulan eskatutako gaitasun eta kaudimen baldintza guztiak betetzen dituela adierazteko.

Dokumentu horretan, halaber, lizitatuzaileak lizitazio, esleipen eta gauzatzeko prozesutik (esleipenduna izatea egokituz gero) amaierara bitarte eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea bere borondatez onartzen duela adierazten duen adierazpena sartu beharko da.

Atzerriko enpresei dagokienez, aipatu erantzukizunpeko adierazpenean sartuko da, **I. Eranskinean** aurreikusitako moduan, kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabeheretan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dela eta, hala dagokionean, lizitatuzaileari atzerrian egokitu dakioken foru jurisdikzionalari uko egiten diola esaten duen berariazko aipamena.

Era berean, enpresa lizitatuzailea beste enpresa lizitatuzaile baten/batzuen (Merkataritza Kodeko 42. artikuluko kasuren batean aurkitzen direnak) enpresa-multzo berekoa izango balitz, b) atal honetan aipatzen den adierazpenean, egoera horren berri emango da, multzoko beste enpresa lizitatuzaile/k identifikatuaz, **I. Eranskinean** aurreikusitako moduan.

- Hainbat enpresarik lizitaziora aldi baterako enpresa batasunean sartuta aurkeztu nahi badute, aurreko b) atalean aipatzen den adierazpena batasun hori osatuko duten bakoitzak eta guztiek aurkeztu beharko dute.

Gehigarri gisa, haiek guztiek sinaturiko dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, haien izenak, hori osatzeko egoerak eta bakoitzaren parte-hartzea adieraziaz. Modu berean, esleipendun izanez gero, aldi baterako batasuna formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela adieraziko dute.

- Kontratua gauzatzeko, Plegu honetako 10. Klausulan aipaturiko gutxieneko giza baliabideak adskribatzeko konpromisoa.

Konpromiso horrek kontratuan nahitaez bete beharreko izaera izango du, SPKLTBko 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori betetzen ez bada, kontratua bertan behera utzi ahal izango da, SUSTAPENAK hala nahi izanez gero.

Atzerriko enpresek dokumentazioa euskarara, edo, hala badagokio, gaztelerara ofizialki itzulita aurkeztuko dute.

SUSTAPENAK eskubidea izango du egiaztatzeko egokitzen jotako lanak egiteko edo beharrezkotzat jotako dokumentazio guztia eskatzeko, lizitatzailerak aurkeztutako informazioa benetakoa dela egiaztatzearen.

## 2. Gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Honako hauek jasotzen dituen memoria:

- Enpresa lizitatzailerak kontratuaren eta eskatutako zerbitzuaren xede izan daitezkeenak ulertzen dituen lanak esanguratsuenen deskribapen zehaztua, dagokion klausulan aurreikusitakoaren arabera.
- Zerbitzu horiek emateko garatu beharreko metodologia edo metodologiak eta aurrez deskribatutako zein lani aplikatuko zaizkion.
- Aurrez aipatutako lanetatik erator daitezkeen entregatzeko posibleen deskribapena.
- Proposatutako lantalde teknikoaren eta laguntza lantaldearen egitura (profilak, betebeharrak eta ardurak), eta bai ere horien antolaketa eta funtzionamendua, bai barne-mailan, bai Sustapeneko langileekiko harremanean eta bai zentroetako atezaintzako langileen koordinazioaren arduradun den pertsonarekiko harremanean.
- Lanen arduradunaren curriculum eta, dagokion kasuan, zerbitzua ematearen ardura zuzena duten pertsona. Curriculumean argi azalduko da hemen aurreikusten diren lanen antzekoetan izandako esperientzia zehaztua, lan horiek zein erakundetan eman diren argi adieraztearekin batera.

Kontratazio publikoan baldintza sozial jakin batzuk sartzearen inguruko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetze aldera, ohartarazten da kontratuak indarrean diren legezko, arauzko

xedapenak eta xedapen konbentzionalak bete behar dituela, Lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko segurtasun eta osasunean aplikatu beharrekoak.

Testuinguru horretan, atal honetan aurreikusitako proposamen teknikoan, lizitatzailerik adierazi beharko dute kontratuaren xedeko jardura egingo duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien, esleipendunak izanez gero.

### 3. Gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Proposamen ekonomikoa Plegu honi **III. Eranskina** bezala gehitutako ereduaren arabera izango da.

## 12. NEGOTIAZIO-FASEA

SUSTAPENeko langile teknikoek denboran eta forman aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko dituzte, eta, zuzendu daitezkeen akatsak edo hutsegiteak ikusiko balitu, gehienez hiru eguneko epea emango dio lizitatzailerari, akats edo hutsegite horiek zuzen ditzen.

Hala behar izanez gero, aurkeztutako dokumentazioan ikusitako akats edo hutsegite horiek behin zuzenduta, negoziazio-fasea irekiko da, honako alderdi ekonomiko eta tekniko hauen inguruan:

- Proposamen teknikoa.
- Proposamen ekonomikoa.

Negoziazioan zehar, Kontratazio Organoa saiaturik da prozeduran parte hartzen duten guztiek tratatu berdina jaso dezaten. Bereziki, ez du modu diskriminatzailean emango lizitatzailerari jakin batzuei gainerakoekiko abantaila eman dezakeen informaziorik.

Negoziazioa amaituta, horren ondorioz eskaintza aldatu duten parte-hartzaileek azken eskaintza igorri beharko dute SUSTAPENera, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatu eta hautatzearen.

## 13. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak, dagokien haztapenarekin adierazita, honako hauek izango dira:

- Proposamen teknikoa: Gehienez 50 puntura bitarte.

Kontuan hartuko dira:

- Lan esanguratsuenen zerrenda eta xehetasunak, 15 puntu gehienez.
- Lanak egiteko proposatutako metodologia, 15 puntu gehienez.
- Lantaldearen antolaketarako eta funtzionamendurako proposamena, enpresa kontratistako langileak eta Sustapeneko langileak kontuan hartuta, edo atezaintzako langileen koordinazioaren arduradun den pertsona barne hartuta, 7,5 puntu gehienez.
- Esleitutako pertsonen esperientzia, 7,5 puntu gehienez. Puntu 1 emango da kaudimen teknikoan eskatzen denaren gainetik egindako lan antzekoak gauzatzeko lanean aritutako entitate bakoitzeko eta puntu 1 epe hori berbera baino haraindirago zerbitzu hori eman den ekitaldi bakoitzeko.
- Sortuko diren entregatzekoen eta txostenen deskribapena, 5 puntu gehienez.

Ebaluazio teknikoan 24 puntu baino gutxiago jasotzen dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

➤ Proposamen ekonomikoa: Gehienez 50 puntura bitarte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak formula honen bitartez baloratuko dira:

Zero punturekin balioztatuko da lizitazioaren salneurriarekin bat egiten duen eskaintza

Puntuazioa proportzionalki emango da honako balioen artean:

- 1.- Lizitazio-prezioa
- 2.- Honakoen artean kopururik baxuena:
  - a) Eskaintza txikiena
  - b) Lizitazioaren salneurria ken %15
  - c) Eskaintzako salneurriaren batez bestekoa ken %10

Honako formula matematikoa aplikatuko da:

$$\text{Ptn} = \frac{(\text{Ls} - \text{On})}{(\text{Pl} - \text{O1})} \times \text{Pto.},$$

(Laburdurak: Ls= Lizitazioaren salneurria; Pto= puntuazio maximoa; O1= preziorik baxuena 2. atalaren arabera; On= lizitatzailerik bakoitzaren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa; Ptn= lizitatzailerik bakoitzak lortutako puntuazioa)



Aipatutako formula gehienezko prezio unitarioen klausulan jasotako kategoria eta tarte bakoitzean aplikatuko da, honako haztapenarekin:

Kategoria teknikorako, 43 puntu gehienez:

- Hilabeteko lehen 10 dedikazio-orduentsako eskaintza, 23 puntu gehienez.
- Hilabeteko 10 eta 40 ordu arteko dedikazioen orduentsako eskaintza, 15 puntu gehienez.
- Behin hilabeteko lehen 40 orduak gainditu ondorengo dedikazioentsako eskaintza, 5 puntu gehienez.

Delineazioko langile laguntzaileen kategoriarako, 7 puntu gehienez:

- Hilabeteko lehen 10 dedikazio-orduentsako eskaintza, 4 puntu gehienez.
- Hilabeteko 10 eta 40 ordu arteko dedikazioen orduentsako eskaintza, 2 puntu gehienez.
- Behin hilabeteko lehen 40 orduak gainditu ondorengo dedikazioentsako eskaintza, puntu 1 gehienez.

## **14. KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Aurkeztutako eta egindako, eta hala badagokio, parte-hartzaileekin dagozkion negoziazioak kontuan hartuz, azken eskaintzak SUSTAPENENKO teknikariek plegu honen 13. klausulan adierazitako balorazio-irizpideen arabera aztertu eta baloratuko dira. Sustapenak, anormaltzat edo neurrigabetzat hartu ez diren proposamenak emango dizkio Kontratazio Mahaiari, handienetik txikienera sailkatuta, eta ekonomikoki merkeena den eskaintza identifikatuko du.

Proposamen egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahalko ditu.

Teknikariek ekonomikoki merkeena den proposamena identifikatzeak ez dio inolako eskubiderik ematen lizitatzailerari SUSTAPENAREN aurrean.

Esleipenerako aukeratutako lizitatzailera hautatzeko, Kontratazio Organoak, oro har, teknikariek egindako proposamenera egokitu behar dute. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko arrazoia arrazoitzen beharko du. Horrela, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Ondoren, ekonomikoki merkeena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerari deituko dio Kontratazio Organoak, errekerimendu hori jaso eta hamar egun balioduneko epean, legez SUSTAPENAREKIN kontratatzeke ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen

duten agiriak bidal ditzala; baita Plegu honen 10. klausulan eskatutako gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen dituela egiaztatzen dutenak ere, orain adieraziko den moduan. Proposamena aldi baterako batasun bat sortu duten enpresaburuek egin badute, agiri horiek, osatzen duten enpresa guztiei buruzkoak izan beharko dira:

1. Enpresaburuaren, eta hala badagokio, bere ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikotzat hartzen diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eskrituren edo eraketa-agiriaren, Estatutuen edo sortze-agiriaren bidez egiaztatuko da. Hor, jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala izena emanda, zer motatako pertsona juridiko diren kontuan hartuz.

- Europar Batasuneko Estatu kideetako espainolak ez diren enpresaburu nazionalen jarduteko gaitasuna dagokion Erregistroan inskribatuz egiaztatuko da, ezarrita dauden Estatuako legediaren arabera, edo zinpeko aitorpen bat edo egiaztagiria bat aurkeztuz, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen arabera.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo Bulego Kontsularreko txostenaren bidez egiaztatuko da, enpresa dagoen lurralde-esparruan. Txosten horren bidez, atzerriko enpresa etortzen den Estatuak Administrazioarekin eta SPKLTBren 3. artikuluan aipatutakoetara onargarriak diren sektore publikoko erakundeekin egindako kontratazioan Espainiako enpresen partaidetza onartzen duela justifikatu beharko dute, antzekoa den moduan.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna nortasun-agiria eta dagokion Estatuan baliokidea den agiri bat aurkeztuz egiaztatuko da.

- Bertaratzen edo proposamenak beste baten izenean sinatzen dutenek nortasun-agiriaren kopia eta xede horretarako nahikoa ahalmena duten egiaztagiria aurkeztuko dute. Ordezkatutakoa pertsona juridikoa bada, eskumena Merkataritza Erregistroan izena emanda jaso beharko da, Merkataritza Erregistroaren Arautegiko 94. artikuluan ezarritakoaren arabera hala eskatzen bada, edo hala badagokio, pertsona juridikoaren arabera dagokion Erregistro Publikoan.

Lizitatzailleek jatorrizko agiriak edo haien kopiak aurkeztu beharko dituzte, behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Lizitatzailleen eta Estatuako Enpresa Sailkatuen Erregistroan izena emanda dauden lizitatzailleek Erregistroko abokatu buruak egindako izen-ematearen indarreko ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahalko dute, 1) atalean eskatutako agirien ordeiz. Izena emateko ziurtagiriarekin batera, lizitatzailleak sinatutako aitorpen erantzulea aurkeztu beharko du. Horretan, agirian jasotzen diren inguruabarrak ez direla aldatu adierazi beharko du.

2. IV. Eranskinaren eredura egokitutako aitoren erantzulea, SPKLTBren 60.1. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik ez duela adierazita.

3. Zerga-betebeharren ordainketa eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

4. Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiria, 10. klausulan ezarritakoaren arabera.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala baliabide hauen bidez egiaztatuko da:

- Negozio-bolumenari buruzko aitordua, kontratuko zerbitzuak emateko esparruan, azken hiru ekitaldiei buruzkoa.
- Azken bost ekitaldi itxietan (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017) gauzatutako kontratu nagusien zerrenda, lizitazio honek xede zuen zerbitzuak ematearen esparruan, kontratu horien datak, hartzaileak eta zenbatekoak barne. SUSTAPENAK erakunde kontratatzaileak igorritako ziurtagiriak eskatu ahal izango ditu, kontratu horiek egoki gauzatu direla ziurtatzeko.

5. Kontratua gauzatzeko konpromiso hartutako giza baliabideak erabili direla egiaztatzen duen dokumentazioa. Hauek ekarriko dira:

- Kontratuaren gauzatzera atxikitako lantalde osoaren izenezko identifikazioa, curriculumeko fitxekin batera, zeinetan honakoak jasoko diren:
  - Azken bost ekitaldi itxietan (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017) gauzatutako kontratu nagusien zerrenda, lizitazio honek xede zuen zerbitzuak ematearen esparruan, kontratu horien datak, hartzaileak eta zenbatekoak barne. SUSTAPENAK erakunde kontratatzaileak igorritako ziurtagiriak eskatu ahal izango ditu, kontratu horiek egoki gauzatu direla ziurtatzeko.
  - Eskatutako tituluak.
- Giza baliabide horiek guztiak eskura daudela egiaztatzen duen egiaztagiria.

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (DPBL aurrerantzean), eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotzen den informazioa kontuan hartuz, (i) aukeratutako lizitatzaileak, tratamenduaren

arduradun gisa, egindako datu pertsonalen tratamendua ekarriko duen biltzeak eta erabilerak; eta (ii) SUSTAPENARI entregatzeak, Klausula honetan ezarritakoa betez, lizitatzailerik horrek egindako data-lagapena ekarriko dute, lagatzaile gisa.

Xede horietarako, aukeratutako lizitatzailerik, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatzearekin eta lagatzearekin zerikusia duen datu-babesari buruzko Legean ezarritakoak ekartzen dituen betebeharrak bete beharko ditu. Zehazki, eta tratamenduaren arduradun gisa dagokion edozein betebeharrak gorabehera, aukeratutako lizitatzailerik DBLOren 11. artikuluan ezarritakoa bete beharko du, eta bere erantzukizunpean, interesdunen baimen informatua lortu beharko du, datu-lagapen hori gaitzen duena. Horretarako eskatzen dutenean behar bezala egiaztatuko dute hori SUSTAPENAREN aurrean.

6. Aldi baterako enpresa-batasunaren eraketa jasotzen duen eskritura publikoaren kopia, hala badagokio, eta aldi baterako batasunaren ordezkari edo ahaldu bat izendatu beharko du, nahikoa eskumenak dituenak eskubideez baliatzeko eta kontratuak hura iraungi arte ekartzen dituen betebeharrak betetzeko.

**Oharra:** SUSTAPENAK eskubidea du beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko, edo beharrezkoa den dokumentazio gehigarria eskatzeko, lizitatzailerik ekarritako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

**Oharra:** SUSTAPENAK aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo gabeziak aurkitzen baditu, gehienez, hiru egun baliodunek epea izango du hori egiteko.

**Oharra:** Atzerriko enpresek euskarara itzulita aurkeztuko dute dokumentazio guztia, edo hala badagokio, gaztelaniara itzulita.

Eskatutako adierazitako epean ez bada betetzen, lizitatzailerik eskaintza kendu duela ulertuko da, eta kasu horretan, hurrengo lizitatzailerik eskatuko dio dokumentazio bera, eskaintzak sailkatuta gertatu diren ordena berean.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egunen barruan kontratua esleitzea erabakiko du, behar bezala zuzenduta kasu horretan, eta gehienez, bi hileko epean, proposamenak egiten diren egunetik zenbatzen hasita.

Kontratazio Organoak erabakiko du esleitzea ebazpen ziodunaren bidez, eta lizitatzailerik jakinaraziko zaie **II. eranskin gisa** Plegu honetan gehitutako eredu gisa. Horrez gain, kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da. Esleipenak kontratuaren behin betiko baldintzak bete eta finkatuko ditu.

## **15. KONTRATUA GAUZATZEA ETA FORMALIZATZEA**

Kontratua formalizatuz gauzatuko da.

Kontratua agiri pribatuaren bidez formalizatuko da, gehienez, hamabost egun balioduneko epean, lizitatzailleek eta esleipendunak esleipena jakinarazten duten egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, esleipendunak, kontratua eskritura publikoan jasotzea eskatu ahalko du. Kasu horretan bere kontura izango dira formalizazio gastuak.

Kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua adierazitako epean ez bada gauzatu, SUSTAPENAK plegu honen 14. klausulan eskatutako dokumentazioa eskatu ahalko dio hurrengo lizitatzailleari, eta hamar egun balioduneko epea emango dio hura aurkezteko.

## **16. KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratua baldintza hauen arabera gauzatuko da:

- Kontratua esleipendunaren arrisku eta ardurapean gauzatuko da.
- Kontratua bere baldintzen arabera gauzatuko da, Plegu honen eta esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren arabera, SUSTAPENAK, edo hala badagokio, kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideei jarraituz.
- Kontratuak legezko xedapenak, arauzkoak eta indarreko xedapen konbentzionalak bete beharko ditu, baita lan, Gizarte Segurantzza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan aplikatzekoak direnak ere.

Testuinguru horretan, Plegu honen 11. klausulan eskatutako Proposamen teknikoan, kontratuaren jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adieraziko dute, esleipendunak izaten badira. Enpresa esleipendunak kontratuaren jarduera egiten duten langileei aplikatzeko aitortzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Horrez gain, esleipendunak, behin kontratua esleituta langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion beste informazio eman beharko du.

Esleipendunak aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotzen den soldata ordaindu beharko du kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lan-kategoriaren arabera. Ordaintzeko soldata ez da inola ere izango hura baino txikiagoa.



Atal honetan ezarritakoa bereziki eta nahitaez gauzatu behar da, SPKLTBren 223.f) artikuluan ezarritako ondorioetarako. Beraz, ez bada betetzen, SUSTAPENAK kontratua bertan behera utzi ahalko du.

Atxikitako langile guztiak esleipendunaren mende bakarrik egongo dira. Esleipendunak bere enpresa izaerari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu, eta ezin dio egin inolako erreklamaziorik SUSTAPENARI lan-harreman edo gainerako betebeharren ondorioz.

Esleipenduna zerbitzua ematean lan egiten duten langileekin zerikusia duen edozein ezbehar edo erreklamazioren (judiziala edo judizioz kanpokoa) erantzule bakarra izango da. SUSTAPENAK ez du inolako lan-erantzukizunik izango (segurtasunari, higienerari eta lan-osasunari buruzkoa barne), ez eta esleipendunak zuzenean edo zeharka hartzen duen Gizarte Segurantzako edo zerga arloko inolako erantzukizunik ere. Halaber, esleipendunak, zerbitzua gauzatzeagatik sortutako ezbeharrek eragindako erantzukizunak bakarrik hartuko ditu bere gain.

- Esleipendunak datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 1571999 Lege Organikoan eta hura garatzen duen arautegian jasotzen diren betebeharrak bete beharko ditu, kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren barruan eta bere kontura eta hala erabakita, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamenduren ondorioz, tratamendu horren erantzule gisa, Plegu honen 18. klausulan berariaz ezarritakoa gorabehera.

## **17.FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**

Esleipendunak betebeharrak hauek izango ditu:

- Kontratua klausuletan, Plegu honetan, baldintza teknikoen pleguan eta kontratuaren arduradunak kontratistari ematen dizkion jarraibideetan ezarritakoaren arabera gauzatzea.
- Eskaintzan konpromiso hartutako giza baliabideen kontratuari atxikitzea.
- Kontratuaren arduradunak eta SUSTAPENeko teknikariek emandako jarraibideei jarraitzea, eta modu koordinatuan harekin gauzatzen diren kontratuko eginkizunak gauzatzea. Etengabe eman beharko dio informazioa.
- Kontratuaren xedea gauzatzea egin behar diren gastu guztiak ordaintzea, zergazkoak, tasak eta kargak barne, indarreko xedapenen arabera.
- Konfidentzialtasuna betetzea, Plegu honen 19. klausularen arabera.

- Jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren beste lizentzia eta baimen lortzea.
- Indarreko legezko, arauzko eta ohiko xedapenak betetzea; baita lan, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta osasun arloetan aplikatzekoak direnak ere, agiri honen 16. klausularen hirugarren gidoian jasotako baldintzen arabera. Testuinguru horretan, esleipendunak aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotzen den soldata ordaindu beharko du kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lan-kategoriaren arabera. Ordaintzeko soldata ez da inola ere izango hura baino txikiagoa.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak nahitaez bete beharko dira SPKLTBren 223.f). artikuluan ezarritako ondorioetarako, beraz, horiek ez badira betetzen, SUSTAPENAK kontratua indargabetu ahalko du.

## **18. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak ematerakoan, beharrezkoa izango da, edukiaren arabera: (i) esleipendunak SUSTAPENAREN eskutik jasotako izaera pertsonaleko datuak tratatzea; eta (ii) esleipendunak SUSTAPENAREN titularitateko fitxategietan gordetako izaera pertsonaleko datuak eskuratzea.

Testuinguru horretan, esleipendunak berariaz adierazten du badakiela nahitaez bete behar duela Datuen Babeserako Legean (batez ere, 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa), Datuen Babeserako Legea Garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan (aurrerantzean DBLE) eta arau horiek garatzeko gainerako xedapenetan xedatutakoa.

Horrela, eta DBLOk hala xedatzen duelako, esleipendunak, Tratamenduaren Arduradun den aldetik, nahitaez izenpetu beharko du SUSTAPENArekin datuak eskuratzeko dagokion kontratua, DBLOren 12. artikulua eta DBLOren 20. artikulua zehazten duten edukiarekin eta irismenarekin.

Datuak eskuratzeko kontratu hori SUSTAPENAREN eta esleipendunaren artean sinatu beharko da, honako lizitazio honen ondoriozko kontratua sinatzen den aldi berean.

Nolanahi ere, eta datuak eskuratzeko aipatutako kontratuan horri buruz ezartzen dena gorabehera, lizitazio honen xede den kontratazioa dela eta, esleipendunak honako aurreikuspenak kontuan izan beharko ditu:

- DBLOn, DBLOEn eta kontratua esleitzen denean indarrean dauden edo kontratuaren indarraldian zehar indarrean egon daitezkeen datuen babesarekin lotutako gainerako arauak bete beharko ditu.

- Testuinguru horretan, eta kontratazio honen xede diren zerbitzuak 2018ko maiatzaren 25a baino gehiago luzatuko direla kontuan hartuta, esleipendunak, aipatutako datatik aurrera, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan jasotako aurreikuspenak ere bete beharko ditu.

- Behar bezala bete beharko ditu interesdunari informazioa emateko eta haren onespena izateko betebeharrak, datuen babeserako gaiari dagokionez aplikatu beharrekoak izan daitezkeen arauetan aurreikusitakoak.

Ondore horietarako, eta aipamen modura, esleipendunak beharrezko bitartekoak erabiliko ditu (adibidez, informazio-klausulak inprimakietan, komunikazio elektronikoetan eta interesdun, hizlari eta bestelakoekiko harremanetan erabiltzen dituen beste agiri batzuetan), kasu bakoitzean honakoak adieraziz: (i) SUSTAPENAK tratatzen dituela datuak, kontratazio honen xede diren jarduketak gauzatzeko helburuz; (ii) kontratazio honen xede diren zerbitzuak betetzerakoan bildutako izaera pertsonaleko datuak SUSTAPENAREN titularitateko Fitxategi batean sartuko direla; eta (iii), ondorioz, SUSTAPENA dela tratamendu horren Erantzule bakarra, eta esleipenduna Tratamenduaren Arduradun hutsa dela.

- Esleipendunaren langileen arteko erabiltzaile bakoitzak bere eginkizunetarako beharrezko dituen datuak edota baliabideak bakarrik eskuratu eta erabili ahal izango ditu.
- DBLOEn edo etorkizunean erregelamendu hori ordeztu ditzaketen beste edozein arautan aurreikusitakoaren arabera dagozkion segurtasun-neurriak hartu beharko ditu.
- Zerbitzuak, hein handi batean, SUSTAPENAREN lokaletan bertan emango direnez, esleipendunak eta bere langileek SUSTAPENAK uneoro datuen babesari dagokionez ezarrita dituen segurtasun-neurriak kontuan hartzeko obligazioa izango dute.
- Esleipendunak SUSTAPENAREN lokaletatik kanpo egiten duen datuen gainerako tratamenduetan, berriz, Datuen Babeserako Legea Garatzen duen Erregelamenduan (DBLE) edo etorkizunean lege horren ordezkio izan daitekeen beste edozein arautan aurreikusitakoaren arabera segurtasun-neurriak erabiliko ditu.
- Datuetara urrutitik sartuz gero, telekomunikazio-sareen bitartez, bertatik bertara jardunda dauden segurtasun-mailako neurri berberak erabiltzen direla bermatu beharko da.
- Ezin izango da probarik egin SUSTAPENAREN titularitateko fitxategietatik datozen datu errealekin.

- SUSTAPENAK hala eskatzen badio, eta datuen babesaren arloko betebeharrak betetzen dituela frogatzeko, honako hauek emango dizkio: (i) bere Segurutasun-agiriaren kopia edo, gutxienez, SUSTAPENAREN enkarguz egiten duen datuen tratamenduari dagokion zatia; (ii) kontratistak datuen babesaren gaian egindako azken Auditoriari dagokion txostena; baita (iii) SUSTAPENAK egokitzen jotzen duen beste edozein agiri ere, betiere agiri horrek SUSTAPENAREN enkarguz kontratistak egiten duen datuen tratamendurekin zerikusirik baldin badauka.
- SUSTAPENARI jakinaraziko dio zein den edo diren segurtasun-neurri horiek abian jartzearen edo ikuskatzearen arduradun zuzena edo zuzenak.
- Datuen babesaren arloan indarrean dagoen arauditik eratorritako betebeharren berri emango die langileei eta horri buruzko prestakuntza eman.
- Esleipendunak zein lizitazio honen xede diren zerbitzuak emateko esku hartzen duten bere langileek kontratuak irauten duen bitartean eskura dituzten eta ezagutzen dituzten datu pertsonalekiko sekretu profesionalari eusteko eta datuok gordetzeko betebeharra izango dute.

## 19. KONFIDENTZIALITASUNA

Esleipenaren publizitateari eta lizitatzailerei eman behar zaien informazioari dagokionez Plegu honetan xedatutakoa gorabehera, Kontratazio-organoak ezingo du lizitatzailerek emandako informazioa zabaldu, lizitatzailerek informazio hori konfidentzialtzat jo badute; hori, zehazki, sekretu tekniko edo komertzialeei dagokie.

Esleipendunak, kontratua betetzerakoan eskuragarri duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, informazio hori konfidentzialtzat jo bada edo, berez, hala tratatu beharreko informazioa bada.

Hain zuzen ere, konfidentzialtzat joko dira, eta esleipendunak ezin izango ditu argitaratu edo zabaldu SUSTAPENAREN alde aurretiko berariazko eta idatzizko baimenik gabe kontratua betetzearen ondorioz ematen zaizkion eta/edo esleipendunak berak kontratuaren xede diren zerbitzuak ematerakoan sortzen dituen informazioak, ezagupideak, agiriak, fitxategiak edo zehaztapenak, ezein euskarritan.

Mugagabe eutsiko zaio konfidentzialtasun-betebehar horri.

## 20. ZIGORRAK

Enpresa kontratatzailearekin lanen bat garatzeko (proiektua, txostena...) epe jakinen bat adostu denean eta epe horretan, lanari egozterik dagoen kausak direla eta, atzerapenik gertatuko balitz, urteko kontratuaren balioetsitako gehienezko zenbatekoaren %5eko zigorra ezarriko da epe horrek SUSTAPENAREN konpromisoren bati (edo, dagokion kasuan, Sociedad Balneario, S.L.-ren bati) eragiten badio; epeak konpromisoetan inongo eraginik izango ez balu, lan horren zenbatekoaren %2ko zigorra ezarriko da, lan horren eskatze-dataren eta amaiera-dataren artean eragindako epearen %10ari dagokion atzerapen bakoitzeko.

Halaber, eskatutako lanen gauzatzean akatsik emango balitz eta akats horrek SUSTAPENARENTZAKO inolako kalterik eragingo balu (edo, dagokion kasuan, Sociedad Balneario, S.L.-rentzako), %5eko zigorra ezarriko da.

Zigorrak betearaziko dira kontratistari, ordainketa oso edo partzial gisa, ordaindu beharreko kopuruari kenduta edo, ordainketa horietatik kendu ezin direnean, gainetiko kopuruaren dagokion erreklamazioa egingo da.

Zigor guzti horiek bidezko diren beste edozein kalte-galeren kalte-ordainketarekin bat etorriko dira modu osagarrian, izaera metagarrian, kontratuaren balio zenbatetsiaren %10ari dagokion zenbatekoarekin.

Edonola ere, ez betetzeak irauten duen artean, SUSTAPENAK edozein momentutan erabaki ahalko du kontratua etetea, 22. klausulan aurreikusten denaren arabera.

Nolanahi ere, SUSTAPENAK bere aldetik erabaki ahal izango du egoki irizten dion denboran zehar zerbitzuekin jarraitzea, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez, eta kontratistaren kontura joango da jarraitutasun horren kostua kasu bietan, kalte-galeren kalte-ordaina eta Klausula honetan aurreikusitako gainerako ondoreak gorabehera.

## 21. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua burutu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan bakarrik aldatu ahal izango du kontratua Kontratazio-organoak.

## 22. KONTRATUA AMAITZEA



Kontratua amaitzeko arrazoi izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. artikuluan a) –85. artikuluan xedatutakoa gorabehera–, b), d), f), g) eta h) hizkietan aurreikusitakoak eta, oro har, kontratu-betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako kontratua amaitzeko edozein kasutan, automatikoki gertatuko da amaitze hori, SUSTAPENAK esleipendunari egin beharreko jakinarazpen fede-emailea beste eskakizunik gabe.

Behin jakinarazpen hori jaso ondoren, esleipendunak nahitaez eta berehala eman beharko dizkio SUSTAPENARI –honek hala eskatzen badio– kontratatutako prestazioak ematerakoan kontratua amaitu bitartean prestatutako edo sortutako agiri guztiak eta SUSTAPENAK eman ahal izan dizkion agiriak.

SUSTAPENAK betetze-mailaren egoerari buruzko akta idatziko du, zehaztuta gera dadin zein zerbitzu onartzen dituen jasotzat eta ezin ez jasotzat, bai eta jaso ez izanaren arrazoiak ere. Era horretan, SUSTAPENAK kontratua betetzen jarraitu ahal izango du, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez.

Esleipendunak zerbitzuen hurrengo esleipendunarekiko trantsiziorako lanak erraztuko ditu, ahalik eta modurik arduratsuenean.

Hori guztia, jarraian xedatutakoaren arabera egin beharreko kontratuaren dagokion likidazio ekonomikoa gorabehera.

Klausula honetan aurreikusitako zein legez bidezkoak izan litezkeen bestelako arrazoiengatik kontratua amaitzearen ondorioz egon litezkeen erantzukizun ekonomikoak likidatuko dira behin kontratua benetan azkentzen denean eta dagokion dokumentazioa entregatzen denean, eta hori ez da oztopo izango SUSTAPENAK egikaritzearekin jarrai dezan.

Kontratua amaitzen den kasu guztietan, esleipendunak, printzipioz, benetan egin diren zerbitzuen prezio osoa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua esleipendunari egotz dakioken edozein arrazoiengatik amaitzen denean, SUSTAPENAREN alde sortuko da kontratuaren urteko prezioaren % 20ari dagokion zenbatekoa, dagokion kalte-galerengatik edozein kalte-ordainez gain.

Kopuru horiek biak kontratistari ordaindu beharreko prezioetik kenduko dira eta, hortik gainetikoa, hala balegokio, erreklamatu egingo zaio.

## 23. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Kontratuaren prestaketari eta esleipenari dagokionez, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu honek, Preskripzio Teknikoen Pleguak eta, horietan jasota ez dagoenari dagokionez, SUSTAPENAREN kontratazioko barne-jarraibideek eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean horren inguruan ezarritako arauak eraenduko dute kontratua (azken hori, araubide harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetarako, kontratu horiek botere esleitzailerik izatera dute eta Herri Administrazioak ez diren sektore publikoko erakundeek egiten dituztenean).

Bere ondoreei eta azkentzeari dagokionez, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguak eta Preskripzio Teknikoen Pleguak eraenduko dute kontratua eta, plegu horietan aurreikusten ez denari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauak, kontratua aldatzeari dagokionez izan ezik; kasu horretan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritakoa aplikatuko da.

Gainera, aplikagarriak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Plegu honek berariaz jotzen duenean testu arau-emaile horietara.

Jurisdikzio zibila izango da kontratua prestatzearen, haren esleipenarekin, ondoreekin, betetzearekin eta azkentzearekin lotuta aldean artean sor litezkeen desadostasunak ebazteko eskumena duena.

Kontratuarekin lotutako auziren bat balego, aldeek Donostiako Epaitegi eta Auzitegiek diotena beteko dute.

Donostia, 2018ko martxoaren 6<sup>a</sup>



Ernesto Gasco Gonzalo  
Lehendakariordea

## I. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOAREN EREDUA

“.....jaunak/andreak,  
..... helbidea, ..... zenbakidun NAN agiria, .....  
telefono zenbakia eta ..... helbide elektronikoa duenak, gaitasun juridiko  
osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean (edo ..... helbidea eta  
..... zenbakidun NAN edo IFK [*persona fisikoa edo juridikoa den*] duen  
..... jaunaren/andrearen ordezkari gisa), **obrak eta arkitektura,**  
**ingeniaritza energetikoa eta instalazioena, eta telekomunikazioetako ingeniaritza**  
**eremuetan, donostiako sustapenak, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze**  
**jardueretan eta telekomunikazioetako azpiegituren kudeatzaile moduan eska ditzakeen**  
**laguntza teknikoko zerbitzuak** publikitadedun prozedura negoziatu bidez kontratatze  
lizitazioa eraenduko duten Klausula Ekonomiko-Administratiboan eta Preskripzio Teknikoen  
Pleguak ezagutzen dituelarik

### HONAKOA ADIERAZTEN DU:

**Lehenengoa.-** Eskaintza hau aurkezten duen egunean DONOSTIAKO SUSTAPENA SA  
sozietatearekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak eta Pleguak exijitutako  
gaitasunari eta kaudimenari dagozkien eskakizun guztiak betetzen dituela.

**Bigarrena.-** (*Enpresa-talde bereko enpresek –hala jotzen dira Merkataritzaren Kodearen  
42.1 artikuluko kasuren batean daudenak– indibidualki aurkezten dituztenean proposamen  
ezberdinak kontratuaren esleipenean lehiatzeko*). Ordezkatzen duen enpresa lizitazio honetan  
proposamena aurkezten duen ..... enpresaren sozietate-talde berekoa dela.

**Hirugarrena.-** Berariaz onartzen duela kontratatzaileak lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-  
prozesutik (esleipenduna bada) eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea,  
amaiera arte.

**Laugarrena.-** (*Atzerriko enpresen kasuan*). Ordezkatzen duen enpresak Espainiako maila  
guztietako Epaitegiek eta Auzitegiek diotena beteko dute, eta haien mende jartzen da  
kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako eta, hala badagokio,  
dagokion atzerriko foruari uko egiten dio.

.....n, 2017ko .....aren .....(e)an

Izpta.: .....

## II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA IZENDATZEA

“.....jaunak/andreak,  
..... helbidea, ..... zenbakidun NAN agiria, .....  
telefono zenbakia eta ..... helbide elektronikoa duenak, gaitasun juridiko  
osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean (edo ..... helbidea eta  
..... zenbakidun NAN edo IFK [*persona fisikoa edo juridikoa den*] duen  
..... jaunaren/andrearen ordezkari gisa), **obrak eta arkitektura,**  
**ingeniaritza energetikoa eta instalazioena, eta telekomunikazioetako ingeniaritza**  
**eremuetan, donostiako sustapenak, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze**  
**jardueretan eta telekomunikazioetako azpiegituren kudeatzaile moduan eska ditzakeen**  
**laguntza teknikoko zerbitzuak** publikatutako prozedura negoziatu bidez kontratatzeko  
lizitazioa eraenduko duten Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen  
Pleguak ezagutzen dituelarik, honako hau aukeratzen du DONOSTIAKO SUSTAPENA SA  
sozietateak lizitazioa dela-eta egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasunezko  
bitartekotzat (\*):

- Posta elektronikoa.

- Posta ziurtatua.

(\*) *Adierazi aukeratutako bitartekoa.*

Nolanahi ere, jakinarazpenetarako honako datu hauek ematen dira:

Posta elektronikoaren helbidea: .....

Posta-helbidea: .....

Harremanetarako telefonoa/k .....

*[Oharra: Jakinarazpenak arinago egin daitezten, lehentasuna lizitatzaillearen posta elektronikoa ematea gomendatzen da; bitarteko hori erabat baliozkoa izango da jakinarazpenetarako, lizitatzailleak berak adierazitakoa izanik. Hala ere, onartzen da lehentasuna beste bitarteko bati ematea ere. Lehentasunik markatzen ez bada, adierazitako helbidera posta ziurtatu bidez bidaliko dira jakinarazpenak.]*

### III. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

[Oharra: eranskina egokitu egin behar da unitate bakoitzeko prezioak eskatzen badira]

“.....jaunak/andreak,  
..... helbidea, ..... zenbakidun NAN agiria, .....  
telefono zenbakia eta ..... helbide elektronikoa duenak, gaitasun juridiko  
osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean (edo ..... helbidea eta  
..... zenbakidun NAN edo IFK [persona fisikoa edo juridikoa den] duen  
..... jaunaren/andrearen ordezkari gisa), **obrak eta arkitektura,**  
**ingeniaritza energetikoa eta instalazioena, eta telekomunikazioetako ingeniaritza**  
**eremuetan: donostiako sustapenak, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze**  
**jardueretan eta telekomunikazioetako azpiegituren kudeatzaile moduan eska ditzakeen**  
**laguntza teknikoko zerbitzuak** publikitatedun prozedura negoziatu bidez kontratatzeko  
lizitazioa eraenduko duten Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen  
Pleguak ezagutzen dituelarik

HONAKOA ADIERAZTEN DU:

- Urtebeteko epean eta, dagokion kasuan, DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.-k hala adostutako luzapenetan, **SUSTAPENAK honako eremuetan behar izan dezakeen laguntza teknikoko zerbitzuak emateko konpromisoa hartzen du;**

- ☐ **1. atala. Obren eta arkitekturaren eremuko laguntza teknikoko zerbitzuak,** kudeatzen dituen eraikinen kudeaketako eta mantentze-lanetako ekintzetan.
- ☐ **2. atala. Ingeniaritza energetikoaren eta instalazioen ingeniaritzako eremuko laguntza teknikoko zerbitzuak,** kudeatzen dituen eraikinen kudeaketako eta mantentze-lanetako ekintzetan.
- ☐ **3. atala. Telekomunikazioen ingeniaritzako eremuko arreta teknikoko zerbitzuak,** telekomunikazioen azpiegituren kudeaketa-funtzioan.

- Epe horretan zehar **SUSTAPENAK behar izan ditzakeen aipatutako laguntza teknikorako zerbitzuak** emateko konpromisoa hartzen du, prezio hauen truke:

Kategoria teknikorako:

..€/orduko hilabeteko lehen 10 dedikazio-orduentzat.

..€/orduko hilabeteko 10 eta 40 ordu arteko dedikazio-orduentzat.

..€/orduko behin hilabeteko lehen 40 orduak gainditu ondorengo dedikazio-orduentzat.

Langile laguntzaileen kategoriarako:



..€/orduko hilabeteko lehen 10 dedikazio-orduentzat.

..€/orduko hilabeteko 10 eta 40 ordu arteko dedikazio-orduentzat.

..€/orduko behin hilabeteko lehen 40 orduak gainditu ondorengo dedikazio-orduentzat.

- Ezagutzen dituela Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak, eta berariaz onartzen eta obedituko dituela guztiz.
- Kontratu hau betetzeko indarrean dagoen araudiak exijitutako eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.
- Halaber, lan-, prebentzio- eta zerga-arloetan indarrean dagoen araudia beteko duela.

.....n, 2017ko .....aren .....(e)(a)n.

[Sinadura]

#### IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOAREN EREDUA

“ .....jaunak/andreak,  
..... helbidea, ..... zenbakidun NAN agiria, .....  
telefono zenbakia eta ..... helbide elektronikoa duenak, gaitasun juridiko  
osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean (edo ..... helbidea eta  
..... zenbakidun NAN edo IFK [*persona fisikoa edo juridikoa den*] duen  
..... jaunaren/andrearen ordezkari gisa), **obrak eta arkitektura,**  
**ingeniaritza energetikoa eta instalazioena, eta telekomunikazioetako ingeniari**  
**eremuetan: donostiako sustapenak, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze**  
**jardueretan eta telekomunikazioetako azpiegituren kudeatzaile moduan eska ditzakeen**  
**laguntza teknikoko zerbitzuak** publikitadedun prozedura negoziatu bidez kontratatze  
lizitazioa eraenduko duten Klausula Ekonomiko-Administratiboan eta Preskripzio Teknikoen  
Pleguak ezagutzen dituelarik,

#### HONAKOA ADIERAZTEN DU:

Ez daukala kontratatze Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategia onesten duen  
azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60.1 artikuluan eta gai horri  
buruzko indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotzen den bateraezirik eta debekurik.

.....n, 2017ko .....aren .....(e)(a)n.

[Sinadura]

**V. ERANSKINA. LIZITATZAILEAK, GUTXIENENKO GIZA BITARTEKO JAKINAK ATXIKITZEKO KAUDIMENA ETA/EDO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO, BESTE ERAKUNDE BATZUEN BITARTEKOETAN OINARRITU NAHI DUENERAKO ADIERAZPENEN AITORPEN-EREDUA**

..... jaunak, ..... zenbakidun NAN agiria duenak, ..... zenbakidun IFK duen ..... enpresaren legezko ordezkari den aldetik, adierazten du erabat ezagutzen dituela ..... lizitatzaila (lizitatzailaren izena) lehiakide gisa aurkezten den **obrak eta arkitektura, ingeniari-tza energetikoa eta instalazioena, eta telekomunikazioetako ingeniari-tza eremuetan: donostiako sustapenak, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa eta mantentze jardueretan eta telekomunikazioetako azpiegituren kudeatzaile moduan eska ditzakeen laguntza teknikoko zerbitzuak** kontratatze-ko lizitazioaren baldintzak, eskatzen den kaudimena duela adierazten du, eta lizitatzaila hori esleipenduna izaten bada, bere esku kontratua egikaritzeko beharrezko bitartekoak jartzeko prest dagoela adierazten du, eta berariaz onartzen duela Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietateak berariaz baimendu behar duenarik ordezkapena edo aldaketa.

DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietateari idazki hau aurkezteak esan nahiko du konpromiso hori onartzen duela, dagokion lizitatzaila hori esleipenduna izaten bada.

.....n, 2017ko .....aren .....(e)(a)n.

[Sinadura]

## VI. ERANSKINA ABALAREN EREDUA

[...] entitateak (*kreditu-entitatearen edo elkarrekiko garantiaren sozietatearen enpresa-izena*), [...] IFKarekin, helbidea [...] (*jakinarazpen eta eskakizunetarako*) eta, bere izenean, [...] (*ahaldunen izen-abizenak*), dokumentu honen beheko partean adierazten den botereen askiespenetik ondorioztatutako nahikoa botere izanda egintza hau betearazteko, ABALA EMATEN DIO: [...] -(e)ri] (*abalatuaren izen-abizenak edo enpresa-izena*), [...] IFKarekin, DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.-REN aurrean, [...] eurotako zenbatekoan (*letraz eta zenbakiz*), **SUSTAPENAK obren eta arkitekturaren eremuan, ingeniariaritzaren energetikoaren eta instalazioen ingeniariartzaren eremuan eta telekomunikazioen ingeniariartzaren eremuan, kudeatzen dituen eraikinen kudeaketa-jardueretan eta mantentze-lanetan eta telekomunikazioen azpiegituren kudeaketa-funtzioan, behar izan dezakeen laguntza teknikoko kontratutik eratorritako betebeharren aurrean erantzuteko.**

Erakunde abal-emaileak bere ardura pean deklaratzeko du bete egiten dituela urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. Abal hori beharrezkoa den printzipalarekiko modu solidarioan ematen da, baztertze- eta banatze-onurari berariaz uko eginda eta DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.-ren lehen eskakizunean ordaintzeko konpromisoarekin.

Abala indarrean egongo da DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.-k berau baliogabetu edo itzuli arte.

Tokia eta data.

Entitatearen enpresa-izena.

Ahaldunen sinadura.